

H A R P I D E D U N A R E N

# TXOKOA

**OHARRA:** Ekainaren 19tik irailaren 18ra bitarte, udako ordutegia izango da Harpidedunaren Txokora deitzeko: 08:30etik 14:30era.

HAUETAKO EDOZEIN ESKAINTZA GUSTUKO BADUZU, DEI EZAZU GURE TELEFONORA, ASTELEHENETIK OSTIRALERA GOIZEKO 9etatik 2etara EDO ARRATSALDEKO 4etatik 6etara.

943 300 222 / 902 300 223

## ION MUNDUATE / LA RIBOT

**La Fundicion (Bilbo)**  
**8 sarrera DOAN**




La Fundicion eta Arteleku zentroek Mugatxoan-Entrecuerpos egitaraua antolatu dute. Ekimen horren bitartez, aurkezteko eta ikusteko jarrera sortzaileetan aldaketak jasotzeko formulak garatu nahi dituzte. Bi errepresentazioz osaturiko emanaldiak izango dira La Fundicion aretoan, ekainaren 17an eta 18an (20:30ean). Lehenean, Ion Munduate koreografo euskaldunak *Boj de largo* lana aurkeztuko du. Bigarrenean, La Ribot madrildarrak *Still distinguished* eskainiko du. Zortzi sarrera ditugu Harpidedunaren Txokoa zotz egiteko.

## OCHO MUJERES

**antzezlan**  
**Antzoki Zaharra (Donostia)**  
**20 sarrera DOAN**

Donostia Kulturak antolatuta, *Ocho mujeres* antzezlan izango da ikusgai ekainaren 16, 17 eta 18an Donostiako Antzoki Zaharrean. Polizi komedia da *Ocho mujeres*; zortzi emakume izango dira taula gainean, zortziak hilketa baten inguruan. Ekainaren 16an (20:00etan) izango den emanaldirako 20 sarrera zotz egingo ditugu.




**LABRIT**  
**Paradisua**  
**Oihuka**  
**disketxea**  
**15 disko DOAN**

Labrit hogeita bi urteko kantari usurbildarra dugu, eta indar handiz datorkigu *Paradisua* lehen lanarekin. Euskaraz egindako pop-a eskaintzen digu, eta, bakarkako lana bada ere, **Pascal Gaigneren** moldatze lanaz eta ekoizpenaz baliatu da. Horrez gainera, musikari handien laguntza jaso du grabazio saioetan, eta zuzeneko emanaldietan ere ondoan izango ditu. Hamabost disko zotz egingo ditugu.



**KARRIKA**  
**JATETXEA**  
**Laudio (Araba)**  
**2 lagunentzako**  
**afaria DOAN**

Afaltzera edo bazkaltzera eraman nahi zaitu EGUNKARIAK. Araba aldera joango gara oraingoan, Laudiora hain zuzen. Bertan, Karrika Jatetxea aukeratu dugu otordu goxo batez goza dezazun. **Bi lagunentzako afaria edo bazkaria** zotz egingo dugu EUSKALDUNON EGUNKARIAREN Harpidedunaren Txokoa. Badakizu, zozketan parte hartu nahi baduzu, deitu baino ez duzu.



**BERTSO AFARIA**  
**U. Iturriaga**  
**I. Elortza**  
**Mungia (Bizkaia)**  
**4 afari DOAN**

Mungian, **Matxin** elkarteak antolatuta, bertso-afari bikaina izango da ekainaren 16an (21:00etan). Elkartean bertan egingo da afaria, eta **Unai Iturriaga** eta **Igor Elortza** izango dira bertsolari lanetan. Lau afari zotz egingo ditugu Harpidedunaren Txokoa, saritu bakoitzeko bi. Badakizue: afari horretara joan nahi baduzue, deitu Egunkariara.

## ARABA EUSKARAZ kamiseten zozketan SARITUAK

**Atxondoko Udal Liburutegia** Atxondo  
**Iruretagoiena Otegi Lierni** Tolosa  
**Dorronsoro Goikoetxea Joanito** Zumai  
**Lasa Jauregi Maritxu** Andoain  
**Xenpelar Euskaltegia Aek** Errenteria  
**Arbaiza Alvarez Julen** Bilbo  
**Iruenpagate Juan** Etxebarri  
**Arranz Arranz Carlos** Derio  
**Valverde Mayora Urko** Azpeitia  
**Eizagirre Arin** Izaskun Andoain

## GOLEM ZINEMA sarreraren zozketan SARITUAK

**Gonzalez Sagues Imanol** Iruñea  
**Iruenezar Euskaltegia - Aek** Iruñea  
**Mailharin Panpi** Berriozar  
**Garnatxa Ardotegia Zizur Nagusia**  
**Iriarte Arregi Arantza** Iruñea